

OPE
2007



2007ko
LEP

KODEA Lanpostua/k:

C-2006

ADMINISTRARIA (HIZKUNTZAK)

1. ariketa. 2. proba

TEST GALDERAK

Galderak: 50.
Denbora, gehienez: 60 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eramán dezakezu.
- Gogoan izan:
 - o Asmatuak: 1,00
 - o Hutsegiteak: - 0,33
 - o Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: - 0,00
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez ahaztu orri horia eta argibide-orria zeurekin eramatea.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

1. Ekonomi Jardueren gaineko Zerga...

- A Izaera errealeko zuzeneko zerga da
- B Izaera errealeko zuzeneko zerga da, eta berorren zergaldia urte naturalarekin bat dator
- C Aukerako zerga da udalentsat
- D Besteak beste lan pertsonalen ordaintan jasotako produktuen salmenta zergapetzen duen zerga da

2. Toki erakundeen ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko hauxe behar da:

- A Egokitasuna eta legezkotasuna egiaztatzea dosierrean
- B Gobernu Batzarraren erabakia
- C Jendaurreko informazioa, 15 egunez
- D b) eta c) erantzunak zuzenak dira

3. Toki korporazioak behartuta daude...

- A Beren ondasun guztien inbentarioa egitera
- B Horiek Jabetzaren Erregistroan inskribatzera
- C Horiek, zer izaera duten edo nola erosi diren, inbentarioan sartu edo ez sartzera
- D a) eta b) erantzunak zuzenak dira

4. Eskualdeek honako hauek biltzen dituzte beren baitan:

- A Udallerriak
- B Mankomunitateak
- C Probintziak
- D Barruti judizialak

5. Ez da udal erroldan nahitaez jaso beharreko datua:

- A Sexua
- B Dena delakoak duen titulazio akademikoa
- C Herritartasuna
- D Telefono zenbakia

6. Udalerria baino lurralde esparru txikiagoko toki erakundeak honako honek arautzen ditu:

- A Berariazko legediak
- B Estatuko legediak
- C Ohiturazko eta tradiziozko arauak
- D Autonomia-erkidegoetako legeak

7. Toki erakundeen ogasuna honako baliabide hauek osatuko dute:

- A Estatuaren eta autonomia-erkidegoen zergetan duten partaidetzak
- B Isun eta zigorren emaitzak
- C Beren ondarean jatorria duten diru-sarrerek
- D Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

8. Ez da udalek ezinbestean galdatu beharreko zerga...

- A Ondasun higiezinaren gaineko zerga
- B Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga
- C Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga
- D Ekonomi Jardueren gaineko Zerga

9. Administrazio-egintza baten edukia(k)...

- A Posible izan behar du, zehaztugabea bada ere
- B Zehaztugabea izan daiteke
- C Zehatza izan behar du, eta posible
- D Ezinezko bada, egintza akasuna izango da, deuseztagarritasuna edo deuseztasun erlatiboa baitakar horrek

- 10. Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen arabera, EZ dute arrazoituak izan behar:**
-
- A** Epeak luzatzeko erabakiek
B Diskrezio-ahalez baliatuz ematen direnek
C Aurreko jardunean erabilitako irizpidearekin bat datozen egintzak
D Arbitraje-prozedurak ebazten dituztenak
- 11. Administrazio-egintzaren jakinarazpena...**
-
- A** Interesdunen eskubideei eragiten dienean bakarrik da beharrezko
B Interesdunen eskubide eta intereseei eragiten dienean da beharrezko
C Beste administrazio publiko batzuen eskubideei eragiten dienean bakarrik da beharrezko
D Beste administrazio publiko batzuen eskubide eta intereseei eragiten dienean da beharrezko
- 12. Jakinarazpenak ez baditu betetzen edukiari dagokionez bete beharrekoak...**
-
- A** Ez du eraginik, inolaz ere ez
B Eragina du, nolana ere
C Eragina eduki ahal izango du interesdunak bidezko edozein errekurtso aurkezten duelarik
D Interesdunak errekurtsoa aurkezten badu bakarrik izango du eragina, edozein errekurtso delarik ere
- 13. Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan gauzaten saiatzean, hartaz arduratzeko inor ez badago...**
-
- A** Hala jasoko da dosierrean, eta, horrez gain, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da; izapidea egindakotzat joko da eta prozedurarekin jarraituko
Hala jasoko da dosierrean, eta, horrez gain, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez beste ordu batean, berriz egingo da jakinarazpena emateko saioa, beste behin bakarrik, eta lortzen ez bada, azken bizilekuko iragarki-taularen bitartez egingo da
B Hala jasoko da dosierrean, eta, horrez gainera, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez beste ordu batean, berriz egingo da jakinarazpena emateko saioa, beste behin bakarrik
C Hala jasoko da dosierrean, eta, horrez gain, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez beste ordu batean, berriz egingo da jakinarazpena emateko saioa, beste behin bakarrik, eta lortzen ez bada, dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko da
D
- 14. Administrazio-zuzenbidearen menpeko administrazio publikoen administrazio-egintzak...**
-
- A** Ematen diren egunetik joko dira baliozkotzat eta izango dituzte ondorioak, salbu eta bertan besterik adierazten bada
B Argitaratu egin beharko dira, beti
C Eman zirenetik hogeit hamar egun igaro ondoren izango dira baliozko
D Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena
- 15. Epeak egunetan adierazten badira, haxe ulertu beharko da:**
-
- A** Lanegunak direla, igande eta jaiegunak ez direla zenbatuko
B Lanegunak direla, larunbat eta igandeak ez direla zenbatuko
C Egun naturalak direla
D Aurrekoetako bat ere ez da zuzena
- 16. Aldeko izaera duten egintzak...**
-
- A** Inoiz ere ezin dira iraungi hartzailearen jokabide baten ondorioz
B Inoiz ere ezin dira iraungi hartzailearen erabaki batengatik
C Inoiz ere ezin dira iraungi hartzailearen jokabide edo erabaki baten ondorioz
D Hartzailearen jokabide edo erabaki baten ondorioz iraungi daitezke
- 17. Egintza bat emateko prozedura guztiz eta erabat alde batera utzi bada...**
-
- A** Egintza hori erabat deuseza da, kasu guztietan
B Egintza hori deuseztagarria da, kasu guztietan
C Egintza hori deuseztagarria da, salbu eta babesik eza gertatu bada
D Egintza hori erabat deuseza da, salbu eta babesik eza gertatu bada

18. Berariaz ebazteko duen obligaziotik salbuetsita egongo da administrazioa...

- A Preskripzioa gertatu, eskubideari uko egin edo prozedura iraungitzen denean
- B Eskaperan atzera egiten denean
- C Prozeduraren xedea gerora desagertzen denean
- D Prozedura adostuta edo hitzartuta amaitzen denean

19. Administrazioak baliozkotu ditzake...

- A Egintza erabat deusezak, egintza horien akatsak zuzentzen baditu
- B Egintza deuseztagarriak, egintza horien akatsak zuzentzen baditu
- C Egintza erabat deusezak, eskumenik ezaren kasuan izan ezik
- D Egintza deuseztagarriak, eskumenik ezaren kasuan izan ezik

20. Hiri Berrikuntzarako Eragintegia...

- A Erakunde autonomoa da.
- B Udal enpresa bat da.
- C Hirigintzaren menpeko sail bat da.
- D Bat ere ez da zuzena.

21. Garapenean Laguntzeko Zerbitzua, organikoki, honako honen menpe dago:

- A Erdu
- B Kultura Saila
- C Herritar Harremanen Saila
- D Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Saila

22. Gizarte etxe eta kirol instalazioen araudiaren arabera hauek dira erabiltzaileak:

- A Gizarte etxe edo kirol instalazio batean bertako instalazioak eta zerbitzuak bidezko eran erabiltzera zilegitasunez sartzen den pertsona edo talde oro, instalazioetan beren zereginak edo lanbidea direla medio sartzen diren pertsonak salbu
- B Gizarte etxe edo kirol instalazio batean bertako instalazioak bidezko eran erabiltzera zilegitasunez sartzen diren pertsona edo taldeak bakarrik
- C Beren zereginak edo lanbidea direla medio instalazioetan sartzen diren pertsonak bakarrik
- D Gizarte etxe edo kirol instalazio batean bertako instalazioak eta zerbitzuak bidezko eran erabiltzera zilegitasunez sartzen den pertsona edo talde oro, eta instalazioetan beren zereginak edo lanbidea direla medio sartzen diren pertsonak

23. Zertaz ari da definizio hau?: "Herritarrei beren eskubide eta betebeharren berri izateko eta ondasun eta zerbitzu publikoak erabiltzeko aukera ematen dien bidea"

- A Kexak jasotzeaz
- B Prozedurak bideratzeaz
- C Sektore-informazioaz
- D Administrazio-informazioaz

24. Identifikazio txartel digitalarekin hauxe eskura dezaket udalaren web-aren bitartez:

- A Famili eroldaren agiria
- B Zerga jakin batean izen emanda nagoela egiaztatzen duen agiria
- C Nire ordainagiri eta isunak
- D Guztiak zuzenak dira

25. Ez dago Oinarrizko Gizarte Zerbitzurik gizarte etxe honetan:

- A Landatxo
- B Hegoalde
- C Aldabe
- D Bat ere ez da zuzena

26. Honelakoak izan daitezke dokumentuen kopiak:

- A Ziurtatuak
- B Erkatuak
- C Soilak
- D Erantzun guztiak zuzenak dira

27. Erregistroaren zereginak dira...

- A Dokumentu jakin bat baden ala ez den eta, beraz, erakundearekin zerikusia duen egintza jakin bat izan den ala ez adieraztea
- B Dokumentuen zaindu eta gordetzea
- C Dokumentazioa jasotzea
- D Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

28. Hauxe da Gasteizko Udalaren herritarrei laguntzeko bulegoen kopurua:

- A 9
- B 10
- C 11
- D 12

29. Gizarte etxe eta kirol instalazioetako jardueretarako zozketan parte hartzeko eskabideak honela aurkez daitezke:

- A Udalaren web orriaren bidez
- B 010 telefonora deituz
- C Horietan bertan eta herritarrei laguntzeko bulegoetan eskuragarri dagoen inprimakia betez
- D Guztiak zuzenak dira

30. Identifikazio txartel digitala honela eska daiteke:

- A Udalaren web orriaren bidez
- B 010 telefonora deituz
- C Herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera joz
- D Guztiak zuzenak dira

31. Hauek dira polizia-neurririk ohikoenak:

- A Baimenak
- B Diru-laguntzak
- C Isunak
- D Aurrekoetako bat ere ez da zuzena

32. Hau da sustapen-neurririk arruntena:

- A Diru-laguntza
- B Lizentzia
- C Baimena
- D Ituna

33. Hauxe da administrazioaren polizia-jardueraren ezaugarri komuna:

- A Sustatzea
- B Babestea
- C Behartzea
- D Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

34. Hauxe da polizia-ahalaren muga nagusia:

- A Legezketasun printzipioa
- B Proporzionaltasun printzipioa
- C Ordena publikoa ziurtatzeko bakarrik aplikatu behar dela
- D Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

35. Toki korporazioek ondasun eta eskubideak erosi ahal izango dituzte...

- A Legeak eskudantzia aitortzen dielarik
- B Okupazioaren bitartez
- C Jaraunspena, dohaintza edo legatua dela medio
- D Erantzun guztiak zuzenak dira

- 36. Adierazi zein den erantzun zuzena, administrazio publikoen erantzukizunaren printzipioei gagozkielarik:**
-
- A Dagokion administrazioak beren edozein ondasun eta eskubidetan eragindako kalte ororen kalte-ordaina emateko eskubidea izango dute partikularrek, beti eta kasu guztietan
- B Dagokion administrazioak beren edozein ondasun eta eskubidetan eragindako kalte ororen kalte-ordaina emateko eskubidea izango dute partikularrek, baina kaltea zerbitzu publikoen ohiz kanpoko jardunbidearen ondorioz sortu bada bakarrik
- C Alegatutako kalteak, nolana ere, benetan gertatua izan behar du, ekonomikoki balioztagarria eta pertsona edo pertsona-talde batera mugatua
- D Alegatutako kalteak, nolana ere, benetan gertatua izan behar du, ekonomikoki balioztagarri ez bada ere, eta pertsona edo pertsona-talde batera mugatua
- 37. Toki korporazioen osoko bilkuretan, honelakoak izan daitezke bozketak:**
-
- A Arruntak eta apartekoak
- B Arruntak, izenen arabekoak eta isilpekoak
- C Arruntak, publikoak eta isilpekoak
- D Izenen arabekoak, apartekoak eta isilpekoak
- 38. Udaltzako balio osoz eratzeko, beharrezkoa izango bertan izatea...**
-
- A Udaltzako kide guztiak
- B Udaltzako kideen erdia eta bat gehiago
- C Udaltzako kideen legezko kopuruaren heren bat
- D Udaltzako kideen legezko kopuruaren laurden bat, gutxienez
- 39. Irizpen-batzordeen irizpenak honela onetsiko dira, beti:**
-
- A Bertako kideen gehiengo osoz
- B Bertan diren kideen gehiengo soilez
- C Legezko kideen herenaren botoekin
- D Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena
- 40. Zeinek finkatzen ditu udaltzaren bilkuren gai-zerrendak?**
-
- A Alkateak
- B Udaltzaren idazkariak
- C Alkateordeak
- D Irizpen-batzordeak
- 41. Erabilera publikoko udal ondasuna da...**
-
- A Kale bat
- B Udaletxea
- C Ospitale bat
- D Udal igerileku bat
- 42. Nolako kudeaketa da zerbitzu publiko jakin bat beste administrazio publiko batzuekiko itunaren bitartez eskaintzea?**
-
- A Zuzenekoa
- B Zeharkakoa
- C Bereizi gabea, organo bereziarekin
- D Bereizi gabea, organo berezirik gabe
- 43. Tokiko gobernua eraberritzeko neurriak biltzen dituen 57/2003 Legearen 13. artikulua arabera, nori dagokio udalerriaren hiriburutza aldatzea?**
-
- A Alkateari
- B Udaltzari
- C Tokiko Gobernu Batzarrari
- D Zinegotziei
- 44. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Legearen arabera, datuak ikusi edo ezeztatze eskubidea egiten diotelarik, epe hau izango du horiek tratatzearen ardura duenak interesdunaren eskubidea gauzatzeko:**
-
- A 10 egun
- B 20 egun
- C Hilabete
- D Ez dago epe jakinik

45. Kexa eta Iradokizunen Batzorde Berezia...

- A Batzorde iraunkor bat da
- B Batzorde berezi bat da
- C Ikerketa batzorde bat da
- D Ez dago halako batzorderik Gasteizko Udalean

46. Ez da nahitaezko betebeharra, administrazio publikoek kontratuak egiteko,...

- A Enpresaren sailkapena
- B Kontratazio organoek eskumena izatea
- C Prezioa finkatzea
- D Horretarako eskumena duen organoak gastua onestea

47. Izaera Urbanoko Bideetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzaren arabera...

- A Horretarako erreserbatutako karriletan barrena zirkulatu beharko dute bizikletek, eta halakorik ezean galtzadatik
- B Horretarako erreserbatutako karriletan barrena zirkulatu beharko dute bizikletek, eta halakorik ezean oinezkoen alderdian barrena
- C Horretarako erreserbatutako karriletan barrena zirkulatu beharko dute bizikletek, eta halakorik ezean oinezkoen alderdian barrena, oinezkoen joan-etorriak galarazten ez badu
- D Debekatuta dago oinezkoen alderdian barrena bizikletaz zirkulatzeko

48. Pertsona jakin bati ematen zaio TAO merkatari txartela, ibilgailu jakin baterako, eta ezaugarri hauek izan behar ditu horrek, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan:

- A 3.000 kg-tik beherako karga erabilgarria duen kamioia
- B 3.000 kg-tik beherako karga erabilgarria duen autoa
- C 3.000 kg-tik gorako karga erabilgarria duen kamioia
- D 3.000 kg-tik gorako karga erabilgarria duen autoa

49. Udalaren kirol instalazioetako bazkide txartelari eta haietan sartzeari gagozkiolarik, adierazi zein den erantzun zuzena:

- A Igerilekuetako bazkide izateko Gasteizen erroldatuta egon behar da
- B Unibertsitarietzako kirol txartelarekin finkatzen diren datetan sar daiteke instalazioetara
- C 65 urtetik gorakoek % 40ko murrizketa dute kuotan
- D 5 urtetik beherako haurrek ez dute txartela egin beharrik, ezta instalazioen sarreran adina nola edo hala justifikatu beharrik ere

50. Zein ezagutza dira garrantzitsuen, herritarrei laguntzeko zerbitzuetako langileentzat?

- A Informazioa kudeatzeko teknikak eta komunikazio teknikak
- B Objektibotasun teknikak
- C Analisi teknika kuantitatibo eta kualitatiboak
- D Aurrekontuak lantzeko teknikak